

## ATZERRIKO IMMIGRAZIOA ETA IRITZI PUBLIKOA:

### Iritzi-egoerak edo gogo-aldateak?

*Ikuspegi honetan, mementoz, utzi egingo diogu atzerriko immigrazioak EAEn izan duen demografia- eta espazio-kontaktari eta hausnarketa bat proposatuko dugu: Espainian atzerriko immigrazioaren fenomenoak iritzi publikoan zer-nolako eragina duen. Horretarako, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) hileroko osatzen duen barometroaren informazioa hartuko dugu oinarri. Immigrazioari buruzko datuen analisiak ikuspegi honen azpitu-tuluan agertzen den galdera egitera garamatza: datu horiek, iritzi-egoerak islatzen dituzte edo, gogo-aldateak besterik ez direnak biltzen? Gure hipotesia da ez direla iritzi sendoak eta finkoak, baizik eta aldateak, immigrazioaren fenomenoak sortutako egoerak nabarmen baldintzatutako aldateak; baina, komunikabideek gaia nola aurkezten duten, edo eztabaida politikoetan nola aztertzen duten, horrek, batik bat horrek baldintzatzen ditu herritarren iritzi eta gogo-aldateak. Besterik da, zein neurritan aldate horiek, aldakorrak oso, laguntzen duten iritzi-oinarri bat finkatzen, ezaugarri jakin batzuekin.*

"Aire-masa handiak -batzuk lehorragoak, besteak hezeagoak- etortzen direnean igotzen edo jaisten da barometroa, hala esan ohi da. Eta iritzi publikoaren barometroa, zein masa desplazamenduren arabera igotzen edo jaisten da?". Raul Gabásek mahai gainean jarritako galdera horrek egiten dio bide gogoeta honi. Atzerriko immigrazioaren gaiaren inguruan iritzi publikoa zein aldakorra eta arina den, horren gainean egin nahi dugu argi, besterik ez. Horretarako, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) hileroko lantzen duen barometroko datu batzuk aztertuko ditugu. Erakunde horrek hamaika iritzi barometro osatzen ditu urtean, hilean bat, abuztuaren izan ezik, eta 2000ko irailaz geroztik -2001eko urriko barometroan salbu- bi galdera hauek ere sartzen ditu, modu honetara eginak:


1. Zein da, zure irudiko, Espainian gaur egun dagoen arazo nagusia? Eta bigarrena? Eta hirugarrena?
2. Eta zein da, zuri gehien eragiten dizun arazoa? Eta bigarrena? Eta hirugarrena?

1. grafikoan ikus dezakegu immigrazioarekiko iritziak, Espainiako arazo gisa harturik, zer-nolako bilakaera izan duen lehen galderari emandako erantzunetan. Ikus daiteke immigrazioa, gero eta gehiago, Espainiako arazo nagusi

moduan hartu dutela herritarrek, nahiz eta gorabehera nabariak izan. Nolanahi ere, azken balantzea argia da oso: analisia egin den sei urteetan, immigrazioa gero eta arazo larriagozat dute

1. grafikoa.

Immigrazioa Espainiako arazo delako ikuspegiaren bilakaera (2000-2006)



Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.


### 1. taula. Barometroan gehien aipatutako gaien inguruan izandako gorabeherak

	Portzentajezko balioa seriearen hasieran (2000ko iraila)	Portzentajezko balio baxuena	Portzentajezko balio altuena	Portzentajezko balioa seriearen amaieran (2006ko abendua)
Langabezia	59,8	40,0 (2006ko azaroa)	65,7 (2002ko apirila)	42,1
Herritarren segurtasuna	10,4	8,0 (2001eko otsaila)	29,0 (2003ko ekaina)	21,1
Terrorismoa, ETA	65,5	18,0 (2006ko iraila)	80,1 (2000ko azaroa)	27,1
Etxebizitza	2,8	2,0 (2001eko martxo)	30,2 (2006ko urria)	29,7
Arazo ekonomikoak	14,2	5,5 (2001eko martxo)	21,5 (2005eko urria)	15,5
Immigrazioa	6,3	5,4 (2000ko azaroa)	59,2 (2006ko iraila)	38,3

Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.

## 2. grafikoa.

CISen barometroetako gai nagusi batzuen bilakaera



Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.

espainiarrek. 2000. urteko urrian soilik galdekatutako herritarren % 6,3k jotzen zuten immigrazioa arazo nagusizat eta, aldiz, 2006ko abenduan, % 38k; 30 puntu baino gehiagoko aldea seriearen hasieratik amaierara. Tarteko une jakin batzuetan, portzentaia are handiagoa izan zen: 2006ko irailean adibidez, % 59ra iritsi zen (2006ko abenduan baino 21 puntu gehiago). Zentzuzkoa da pentsatzea iritzi gorakada nabarmen horien oinarrian komunikabideek behin eta berriro luze-zabal agertutako fenomenoak daudela; kasu honetan, udako irudi haiek, cayucoak Kanariar Uharteetako hondartzera iristen.

Egia da: hainbat fenomeno arazotzat jotzerakoan aldakortasun hori egotea ez da soilik immigrazioaren gaiarekin gertatzen. Antzera gertatzen da CISen galdetegiko beste item batzuekin ere: langabezia, hirietako segurtasun-falta, terrorismoa, etxebizitza edo arazo ekonomikoak, (immigrazioarekin batera horiek dira aukeratuena), gai horien guztien inguruan ere gorabehera nabarmenak izaten dira, egoera jakinen baitan (ikus 1. taula eta 2. grafikoa).

Badira kasu apartekoak, iritzi batzuen badaezpadakotasuna eta aldakortasuna garbi erakusten dutenak. Une jakin batean (2003ko martxoko barometroa), adibidez, jende multzo handi batek "gerrak" jo zituen Espainiako arazo nagusizat; hutsetik kopuru oso altuetara igo zen jende kopuru hori bat-batean (ikus 3. grafikoa), noiz eta Irakeko inbasioaren unerik gorena egokitu zenean. Eta gero, behin borroka zuzena amaitu zelarik, gerrak desagertu egin ziren kezken aipamen horietatik.


Bai, hala da: zenbait iritziren aldakortasuna eta arintasuna ez da immigrazioaren gaiaren ezaugarri berezitua, inolaz ere ez, baina fenomeno honek baditu hainbat ertz oso bereak, aztertzea merezi dutenak.

Lehenik eta behin, komunikabideek CISen barometro berri bakoitzari buruzko informazioa jorratzen dutenean, ia inoiz aipatzen ez duten datu garrantzitsu bat agertuko dugu: serieko barometro guzti-guztietan aurreneko eta bigarren galderari emandako erantzunen artean dagoen desadostasun edo alde deigarria. Beste modu batera esanda: immigrazioa Espainiako arazo larrirentzat jotzen dutenen eta eurei gehien eragiten dien arazo gisa aipatzen dutenen artean dagoen alde izugarria.

4. grafikoa ikus dezakegu seriean zehar inmigratioak, norberaren arazotzat hartuta, zein bilakaera izan duen. Kasu honetan, immigrazioa zuzenean eragiten dien arazo dela erantzuten dutenen portzentaia jaitsi egiten da nabarmen eta, batzuetan, Espainiako arazo eta norberaren arazo izatearen artean dagoen alde hori, izugarria da. Seriearen hasieran, 2000ko urrian, % 2k esan zuten immigrazioa arazo pertsonal gisa hartzen zutela, eta amaieran, 2006ko abenduan, % 12ra igo zen kopuru hori.

## 3. grafikoa

"Gerrak" Espainiako arazo eta norberaren arazo aukeratzen dituzten galdetuen kopurua (2003 urtarrila-ekaina)



Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.

Dena den, zehaztu beharrekoa da iritzien goraldiak eta barealdien bigarren kasu honetan ere, aurreneko galderaren goraldi eta barealdien norabide berean doazela: immigrazioa Espainiako arazo delako iritziak gora egiten duen neurrian egiten du gora norberaren arazo delako iritziak ere. Beharbada, hemen, berrelikadura eragina antzeman liteke; immigrazioaren fenomeno Espainiako arazo jotzeak arazo pertsonal gisa hartzea bideratu du jendea. Eta hala, denborarekin, iritzi bat finkatu liteke, ezkorra eta alarmista, Espainiako gizartean gero eta sendoago errotua.

Aipatu dugunez, bigarren galdera horren erantzunak nekez pizten du komunikabideen arreta. Aurreneko galderan atentzioa jartzea eta bigarrenari ez erreparatzea, hori da seguruenik, erantzunen artean dagoen desadostasun nabarmena eragiten duen arrazoietako bat; izan ere, arazo gisa azaldu edo hitz egin denari buruz berba egiten amaitzen da, eta ez halabeharrez, berez arazo denari buruz.

Bide batez, iduri du zientifikoki sinesgarriagoa dela bigarren erantzuna, aurreneko baino: aise ulertu liteke herritarren %12arentzat immigrazioa arazo izatea; ez hainbeste %40arentzat edo, areago, % 60arentzat, Espainiako arazo nagusia izatea. Bide honetan aurrera eginez, ausartuko ginateke proposatzera aurreneko datua (2006ko abenduko, euren gehien eragiten duen arazo immigrazioa dela zion herritarren % 12 hori) iritzi-egoera baten isla dela eta, aitzitik, bigarrena (immigrazioa Espainiako arazo larriena dela erantzun zuen % 38 hori), gogo-aldarte baten adierazgarri dela gehiago.

5. grafikoa eta 2 taulan, serie osoan zehar bi erantzunen artean dagoen aldea ikus dezakegu. Ikus daiteke erantzunek konpas berean egiten dutela gora eta behera, biek denbora eta zentzu berean. Ikus liteke, orobat, hileroko barometro guzti-guztietan, handiagoa dela immigrazioa Espainiako arazotzat jotzen dutenen kopurua, arazo pertsonaltzat jotzen dutenena baino, kasu batzuetan askoz handiagoa. Alde hori, denborak aurrera egin ahala gero eta nabarmenagoa, 41 puntura iritsi zen desadostasun tartea handiena izan zen garaian (2006ko irailean).

Iduri du, nolabait laburtzarren, arazo hau larri samarra dela Espainiarentzat, baina ez hainbeste espainiar bakoitzarentzat.

2. taulan garbi ikusi liteke nola aldeak gora egin duen azken urte hauetan guztietan; horren erakusgarri, desadostasunaren urteko batez bestekoa ekarri dugu. Batez besteko hori nabarmen hazi da serieko azken bi urteetan: 2005ean % 18ra igo zen eta 2006an % 26ra. Era berean, ikus liteke immigrazioa Espainiako arazo delako ikuspegi hori indartzen duen heinean, handiagoa dela aldea norberaren arazo delako ikuspegiarekiko. Bidezkoa da galdetzea zenbateraino ez ote den ari galdearen errepikapen sistematikoa errealitatea sortzen; eta errealitate horrek zein neu-

ritaraino ez ote duen berrelikatzen immigrazioaren ikuspegia arazo gisa hurrengo galdeketa eta, hala, segi eta segi, jira eta bira, gupil zoro bat bezala.

Interesgarria litzateke oso ikertzea immigrazioari buruzko iritzia zein neurritan ari diren errealtatearen ikuspegia edo itxura eskaintzen, baina errealtateak berak eskaintzen dizkigun datuekiko erabat modu autonomoan funtzionatzen. Thomas Sowell ekin ezin hobeto esplikatzen du: errealtatearen ikuspegi edo itxuren ezaugarria horixe da, datuen kontra ere, datuek besterik esaten badute ere, mantendu egiten dira. Egile honen aburuz, ikuspegiok *premisak* dira, munduaren, pertsonen eta gizartearen inguruko *sinisteen* multzo egituratuak. *Uste inplizituak* dira eta horietatik eratorzen dira, halabeharrez, ondorio desberdinak eta kontrakoak hainbat arazoren inguruan. Ikuspegiak, ezeren gainetik, arrazoitze moduak dira: horietatik abiatuta bilatzen dira "guzen" zergatiak. CISen barometroan, immigrazioari buruz agertutako iritzien oinarrian ere arrazoitze mekanismo hori ote dago?

Galdera egiten diogu geure buruari zein neurritan diren iritzia aurretiazkoak edo abiapuntu apriorizkoak eta horietatik abiatuta ez ote diren bilatzen datuak iritzi horiek baieztatze eta, aitzitik, zergatik egiten den hain gutxitan kontrako bidea: errealtateko datuak bildu ondoren, iritzia eman. Puntu honetan, egia izan daiteke atzerriko immigrazioa Espainiako herritarren oso zati txikiarentzat izatea arazo -immigranteak gizartearen egitura eta lan esparruan benetako lehiakide gisa ikus ditzaketen zati horrentzat, batez ere-, baina hala ere, espainiar kopuru oso zabal batek aipatzen du arazo gisa. Izan ere, ezin dugu ahaztu iritzia, gehienetan, ezagutzarengandik eta, areago, norberak bizitako independentea.

Zentzu honetan, lehen galderaren emaitzak, seguruenik, logika baten ondorio dira. Honela funtzionatzen du logika horrek: "jendeak badio immigrazioa arazo dela, bada, izango da. Niretzat ez, baina jendeak baietz badio, zerbaitegatik izango da". Gainera, askok eta askok pentsatzen dute hori aldi berean. Logika horrek *elur bola* sortzen du eta egiazko ertzak desitxurutzen; errealtateko beste edozein alderdi edo gairi ere aplikatu dazioke logika hori. Noelle-Neumannek dion bezala iritzi publikoa "onargarria den zerbaite adierazpena" bada, agian atzerriko immigrazioari buruzko iritzi-egoera bat osatzen ari da. Funtsean, hori da kezkatzen gaituena. Eta iritzi-egoera horrek arazo larritzat definitzen du atzerriko immigrazioa eta herritarrek gero eta gehiago hala onartzen dute. Iritzi bat, finean, legitimotzat hartua eta, azkenean, jakintzat eman dena. Egia sozial bat, iritziengandik edo, areago, norberak bizitako independente samarra.

Egia da: Espainia da Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) baitan immigranteen hazkunderik handiena izan duen herrialdea: populazioaren % 7a 2000 eta 2005 artean. Hurrengo, Irlanda, urrun dago oso, % 4ko igoerarekin. Bilakaera honek eragin du bosturteko bakarrean Espainiak oso azkar egitea gora ELGAko herrien sailkapenean (immigrante kopuruaren arabera antolatutako rankinean, alegia): 2000. urtean 21. zen (% 4 ziren immigranteak), eta 2005ean hamaikagarrena (% 11). Frantzia, Holanda eta Erresuma Batua baino zertxobait gorago dago, gaur egun Espainia.

Populazio immigranteak hain denbora gutxian gora egin izanak esplikatu dezake, neurri batean, herritarrek arazo gisa ikustea immigrazioa. Immigranteak oso modu desberdinean banatzen dira Autonomia Erkidegoetan, eta horri buruz ere gauza bera esan liteke. Hala, erkidego batzuetan immigranteen populazioa handia da, hala nola Balear Uharteetan (% 16), Murtzian eta Valentziako Autonomia Erkidegoan (% 13), edo Katalunian eta Madrilan (% 12). Eta beste batzuetan, berriz, oso immigrante gutxi daude bertoko herritarren artean, Extremaduran, Asturiasen eta Galizian adibidez (% 2,5 besterik ez). Hala eta guztiz ere, Espainiako iritzi publikoak immigrazioari buruz


2. taula. CISen barometroak eta atzerriko immigrazioa. 2000ko iraila - 2006ko abendua

		Espainiaren arazoa	Norberaren arazoa	Desadostasuna	Desadostasunaren urteko batz bestekoa
2000	Iraila	6,3	2,0	4,3	4,9
	Urtarrila	6,5	1,5	5,0	
	Azaroa	5,4	1,7	3,7	
	Abendua	9,9	3,4	6,5	
2001	Urtarrila	16,5	4,1	12,4	10,4
	Otsaila	29,4	7,8	21,6	
	Martxoa	15,9	5,3	10,6	
	Apirila	15,9	4,7	11,2	
	Maiatza	13,1	3,9	9,2	
	Ekaina	14,7	4,6	10,1	
	Uztaila	14,4	5,3	9,1	
	Iraila	12,9	4,4	8,5	
	Abendua	9,3	3,6	5,7	
2002	Urtarrila	14,0	5,3	8,7	10,6
	Otsaila	16,8	6,3	10,5	
	Martxoa	14,9	5,8	9,1	
	Apirila	13,3	4,3	9,0	
	Maiatza	22,0	9,3	12,7	
	Ekaina	26,3	9,3	17,0	
	Uztaila	24,1	9,5	14,6	
	Iraila	20,3	10,4	9,9	
	Abendua	12,0	4,9	7,1	
2003	Urtarrila	13,4	5,6	7,8	7,8
	Otsaila	9,8	3,7	6,1	
	Martxoa	8,5	3,4	5,1	
	Apirila	8,7	4,2	4,5	
	Maiatza	13,8	4,6	9,2	
	Ekaina	14,4	5,6	8,8	
	Uztaila	14,8	6,9	7,9	
	Iraila	16,2	6,3	9,9	
	Abendua	13,9	5,1	8,8	
2004	Urtarrila	14,8	5,7	9,1	9,3
	Otsaila	12,9	5,6	7,3	
	Martxoa	9,2	4,5	4,7	
	Apirila	11,8	4,9	6,9	
	Maiatza	14,9	6,3	8,6	
	Ekaina	17,1	7,0	10,1	
	Uztaila	16,0	7,3	8,7	
	Iraila	20,4	7,4	13,0	
	Abendua	18,0	7,7	10,3	
2005	Urtarrila	20,0	8,0	12,0	18,8
	Otsaila	21,8	5,2	16,6	
	Martxoa	17,2	6,8	10,4	
	Apirila	27,8	10,0	17,8	
	Maiatza	26,2	4,3	21,9	
	Ekaina	21,8	4,4	17,4	
	Uztaila	21,7	7,4	14,3	
	Iraila	33,0	8,2	24,8	
	Abendua	29,0	9,9	19,1	
2006	Urtarrila	32,4	11,3	21,1	26,5
	Otsaila	26,7	6,9	19,8	
	Martxoa	32,6	9,5	23,1	
	Apirila	29,8	9,7	20,1	
	Maiatza	43,6	14,9	28,7	
	Ekaina	38,0	12,1	25,9	
	Uztaila	35,9	11,8	24,1	
	Iraila	59,2	18,1	41,1	
	Abendua	38,3	12,3	26,0	

Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.

#### 4. grafikoa.

Immigrazioa norberarentzat arazoa delako irudipenak izan duen bilakaera (2000-2006)



Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.

agertutako usteak edo iritziak zerikusi gutxi edo batere ez du fenomenoaren benetako errealitatearekin.


Ikuspegik, gure behatokiak, jakinarazi duenez, euskal herritarrek pentsatzen dute Euskadin lau aldiz immigrante gehiago daudela benetan daudenak baino. Espainiako herritarren irudipena ez da hainbestekoa, baina okerrekoa hori ere: CISek inkestetako batean galdetu izan duenean Espainian zenbat immigrante zeuden, gehienek uste zuten egiazko kopurua baino halako bi zeudela. Espainian immigrante "gehiegi" daudelako iritziaren alde zeuden 1996an galdekatutako % 29, eta 2004an, aldiz, % 53. Eta pentsatzekoa da azken bi urteotan ere iritzi horren aldekoak igo egingo zirela. Zergatik?

Azken urteotan ugaritu egin dira immigrazioaren inguruko berriak, Sami Näirrek "metafora kezkarriak" deitzen dituen horiek. Immigrazioak, askotan, "jendetsua" izenondoa darama aldamenean eta, bestetan, "irregularra" edo "ez-legezkoa". Kasu bat zein bestea, arazoa besterik ezin du izan: jendetsua bada, kopuruagatik; irregularra bada, kalitateagatik (kalitate txarragatik, noski). Fenomenoa deskribatzeko karga handiko (eta ezkorreko) hitzak erabili izan dira, hala nola "marea", "dei efektua", "oldea". 2005. urtetik metafora kezkarri horiei beste bi gehitu zaizkie; telebistek dramatismo handiz eskaintzen dituzten irudi hunkigarriak lagunduta eta egunkarietako argazkiek ikono gisa gure begi-ninietan finkatuta geratu dira beste bi metafora hauek. Hesi baten gainetik jauzi egiten saiatzen diren pertsonak jada ez dira jauzilariak eta "erasotzaileak" bihurtu dira; eta olatuaren nabigatzen itsasertzera iristen diren pertsonak "oldeak" bilakatu dira. Eta beti pertsonen trafikatzailerak eta mafiekin lotuta. Emaitza? Biktimak izan arren, euren kontrakoa bihurtu da borroka.

Zigor Sistemaren eta Giza Eskubideen Behatokiak (www.ub.edu/ospdh) egindako ikerketa batek albiste hauen

#### 5. grafikoa.

Immigrazioa Espainiaren arazo eta norberaren arazo delako irudipenak izan duen bilakaera (2000-2006)




Iturria: CIS barometroa. Geuk landua.

giltzarriak aztertu ditu: berri horietan immigranteak ez dira nor, ez dute ahotsik eta nortasunik; hunkigarritasuna bilatzen da eta, askotan, bestelako erreportaje batzuen zatiak dira, izaera politikoa duten beste albiste batzuei laguntzeko. Gainera, immigrantea daitekeen eta espezierik desberdinena bezala aurkeztu dugu, batez ere Magrebetik datorrena. Eta hori, Espainiako immigrazioaren gehiengoa Latinoamerikatik datorrela, eta bigarren multzo nagusia, jatorriari dagokionez, Europako beste herrialde batzuetatik. Espainiako immigranteen % 13,7 soilik dator Marokotik, eta % 4 baino ez Saharaz hegoaldeko Afrikatik. Baina, hala ere, bi giza multzo hauek ("mairua" eta "beltza") dira guztion irudipenak bereganatzen dituztenak.

Honen guztiaren emaitza, ezinbestean, argia da: gizatasunaren oinarria ahultzea. Biziki interesgarria da CISen 2004ko azterketa bat. Inkesta bete zutenei galdera hau egin zitzaizen aurrena: "zure ustez edonork izan beharko luke edozein herritan bizitzeko eta lan egiteko askatasuna?", eta % 89ak baietz erantzun zuen. Baina atzerritarrek Espainian sartzea eta bertan lan egitea arautzen duten legeen inguruko iritziak galdetuta, % 23ak "toleranteegiak" direla iritzi zion, eta soilik % 7a agertu zen ados "langile immigranteei inolako lege trabarik gabe sarrera baimentzeko". Gehiengo zabalak (% 85) "soilik lan kontratua dutenei" baimenduko ziekeen sarrera. Ibiltzeko, bizitzeko eta lan egiteko askatasuna, bai, baina ez hemen.

Amaitzeko, diskurtso *akatsik gabe* horietatik urruntzera gonbidatu nahi dugu jendea -egungo immigrazio prozesuaren arazo begi-bistako horren aurrean begiak itxi besterik egiten ez duten diskurtso horietatik, alegia-. Eta beste diskurtso *errukirik gabe* horietatik are eta urrunago lekutzerak -beldurraren eta alarmaren zapi gorria astindu besterik egiten ez dakiten diskurtsoetatik, erran nahi da-. Ikuspegi honetan aurkeztu ditugun datuek bultzatu behar gaituzte fenomeno honen analisisan sakontzera, izan ere, askotan, fenomeno horren epidemias ilun eta dramatikoena besterik ez baita erakusten.




**ikuspegi**  
Immigrazioaren Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco de Inmigración


EAEko immigrazioaren inguruko informazio gehiagorako kontsulta ezazu gure web orria: [www.ikuspegi.org](http://www.ikuspegi.org)

Web orriaz gain, Behatokiaren beste zerbitzu batzuk ere zure esku daude:

- **Dokumentazio zentrua:** kontsulta zerbitzua eta liburutegi mailera eskeintzen ditu.
- **Informazio estatistikoa.**



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Behatokiak burututako **ikerketak**, edota orain arte argitaratutako **"Immigrazioari begiradak"** kontsultatzeko aukera ere badago.

**Gurekin harremanetan jartzeko:**  
Tlf.: 94 601 82 75  
Fax: 94 402 35 40  
e-mail: [info@ikuspegi.org](mailto:info@ikuspegi.org)

**Postaz eta pertsonalki** helbide honetan aurki gaitzakezu:  
Alameda Mazarredo 39, 4.C., 48009 Bilbo - Bizkaia